

ANTONIO de GAZTAÑETA

1656-1728

XVII. mendeko krisiaren ondoren ozeanoa zeharkatzen zuen Itsas armadaren berpizte teknikoari hasiera eman zion pertsonen artean euskaldun bat lehenbizikoenetakoa izatea ez zen kasualitatea izan. Itsasoko euskal familien artean nabigazio artearen transmisioak batetik bestera igarotzen jarraitu zuen eta hori giza talde gutxitan gertatu zen. Antonio Gaztañeta Mutriku jaio zen, itsas familia garrantzitsu batean: 12 urte zituela aitarekin itsasoratu zen Amerikako itsasbidea egiteko. Aitak berak erakutsi zizkion Ozeanoan zehar ibili izan ziren gipuzkoar belaunaldiek landutako nabigazio, geografia, matematika eta astronomia jakintzak.

Baina bere dohaiak ikusirik nabigatzaile baino askoz gehiago zela erakutsi zuen Gaztañetak, aita Espainia Berriko Errege-orderriko Veracruzeko portuan hil eta gero, Ontziaren ardura hartu zuenean. Gaztaro erdian egonik Ontzia Pasaiaiko porturaino gidatu zuen eta ez zuen ez kargarik ezta pertsonarik galdu. Hortik aurrera ozeanoko itsasbiderik zailenetarikoak eman zizkioten egiteko. 1686an, kapitain kargu izateaz gain, Ozeanoko Armadaren Pilotu Nagusi izendatu zuten. Ozeanoa zeharkatzen zuten ibilaldietako kargu enpirikorik garrantzitsua zen eta berak egindako berrikuntzen berri emateko 1692an “*El Norte de la navegación hallado por el cuadrante de reducción*” idazlan teknikoa argitaratu zuen. Itsas armadaren garai berriaren ilustrazioko lehenengo idazlana, alegia. Baina nabigatzaile izateaz gain gerlari ere bazen eta Amerikako Darieneko kostaldearen aurrean Ingelesak garaitu zituen 1699an. Ondorengotzarako gerra tristearen ondoren (1700-1713), Felipe V.ak iparraldeko kostaldea defendatzeko ontzi berri batzuk egin zituzala agindu zion. Gaztañetaren unerik gorena izan zen; Itsas armadaren Superintendente Nagusi izendatu zuten eta flota berria eraikitzeko funtsezko arauak ezarri zituen. Mediterraneoan kanpainan ingelesek harrapatu zuten Passaron, eta ekintza horretan zauritu egin zuten. Libre utzi eta denbora laburrera Madrilen zendu zen Gortean bertan, Ilustrazioko Armada berritzeko lanekin jarraitu nahi izan zuenean.

No es casualidad encontrar un vasco entre los primeros que reiniciasen el auge técnico de la Marina transoceánica tras la crisis del siglo XVII. A principios del siglo XVIII las familias vascas del mar eran de los pocos grupos sociales donde la tradición del “arte de navegar” había quedado intacta a raíz de su continuidad. Antonio de Gaztañeta nació en Mutriku de una importante saga de marinos. A la edad de doce años embarcó con su padre en las difíciles singladuras hacia América, enseñándole éste los principales conocimientos de navegación, geografía, matemáticas y astronomía que eran propios de la idiosincrasia atávica de los guipuzcoanos en el océano. Pero por sus dotes Gaztañeta era mucho más que un gran navegante. Así lo demostró cuando tras fallecer su progenitor en el puerto de Veracruz (Virreinato de Nueva España) durante una de las singladuras atlánticas, se hizo cargo del navío y en plena juventud hizo arribar el buque al puerto de Pasajes sin perder ni carga ni hombres. Desde entonces se le confiaron algunas de las rutas más difíciles, siendo nombrado en 1686 Piloto Mayor de la Armada del Océano, poseyendo ya igualmente el grado de capitán. Era el cargo empírico con mayor responsabilidad en las travesías transoceánicas y pronto sus innovadores conocimientos le condujeron a publicar en 1692 la brillante obra técnica *El Norte de la navegación hallado por el cuadrante de reducción*, en realidad el primer trabajo ilustrado de los nuevos tiempos de la Marina. Pero además de navegante era guerrero, derrotando a la Armada inglesa en 1699 delante de las costas americanas de Darien. Tras la triste Guerra de Sucesión (1700-1713), el nuevo monarca Felipe V le encargó la construcción de nuevos buques para la defensa costera del Norte. Fue el momento cumbre de Gaztañeta que ascendió a Superintendente General de la Marina y renovó los principios claves de la construcción de la Flota. Durante la Campaña del Mediterráneo de 1718 sería capturado por los británicos en Passaro, resultando herido de aquella acción. Tras su liberación no tardó mucho en fallecer en Madrid, cuando se disponía dentro de la Corte a proseguir con las nuevas pautas de la Armada de la Ilustración.

It is no coincidence that a Basque was that a Basque was among the first to recover the technical impulse of the High Seas Navy after the crisis of the 17th century. Towards the beginning of the 18th century, the Basque maritime families were one of the few social groups where the "tradition of sailing" had remained intact. Antonio de Gaztañeta was born in Mutriku, one of an important saga of seamen. At the age of twelve, he embarked, with his father, on the difficult voyages to America. His father taught him the principles of navigation, geography, mathematics and astronomy, which were typical of the traditional idiosyncrasy of the Guipuzcoans. But, Gaztañeta, thanks to his talents, was much more than a great navigator. He proved this when his father died at the port of Veracruz (Viceroyalty of New Spain) during one of their Atlantic voyages. He took command of the ship and, young as he was, brought the ship back to the port of Pasajes without losing either the cargo or any men. Since then, he was assigned some of the most difficult routes and was appointed Senior Pilot of the Ocean Navy in 1686, a date by which he had already reached the rank of captain. This was the most important empirical position on transoceanic voyages and soon his innovative skills led him to publish a brilliant technical book in 1692, *El Norte de la navegación hallado por el cuadrante de reducción*, really the first Enlightened work of the Navy's new period. But, apart from being a navigator, he was also a warrior and defeated the English Fleet in 1699 off the American coasts at Darien. After the ill-fated War of the Spanish Succession (1700-1713), the new monarch, Philip V, appointed him to build new ships to defend the north coast of Spain. This was Gaztañeta's supreme moment, when he was promoted to General Quartermaster of the Navy and he renewed the key principles on rebuilding the Fleet. During the Mediterranean Campaign in 1718, he was wounded and made prisoner by the British at Passaro. After being set free, he soon died in Madrid, when he was about to continue, form within the Court, with the new guidelines for the Navy of the Enlightenment.

ANTONIO de GAZTAÑETA